

DIRU-ITURRIAK

Gure diru-iturri nagusia saldutako aulki kopuruaren arabera izango da. Aurretik aipatu bezalaxe, bai neurri bai material baita koloreak ere eragina izango du prezioan; merkeena 120 euroren truke izanik eta gehieneko prezioa 300 euro izanik.

Enpresarekin hasi ahal izateko, gutako bakoitzak 1.000 euro jarriko ditu, hau da, 5.000 euro guztira, dirurik gabe enpresari hasiera ematea ezinezkoa baitaigu. Horretaz aparte, mailegu bat eskatuko dugu, aulkiak saltzen joaten garen heinean ordaintzen joango garena, %3ko interesa duena, 10.000 euroko mailegua izateagatik.

Gainera, lehenengo urtean beherapen desberdinak ezarriko dizkiogu gure produktuari, jendeak gure enpresa ezagutzea nahi dugulako. Hala ere, behar adina ez dela ikusten badugu webguneaz baliatuz, beste enpresa batzuek bezala publizitatea jarriko dugu. Honek, beste diru-iturri bat izatea ahalbidetuz.

Hau horrela izanik, bi diru-sarrera desberdin izango ditugu: alde batetik ordainketa errepikaria, aulkiak saltzearen ondorioz lortutakoa. Bestetik, gutako bakoitzak hasieran saldutako errifa zenbakiak (berriro saltzearen beharra ikusten ez badugu), ordainketa bakarreko diru-sarrerak liratekenak. Ondorioz, gure enpresa diru-sarrera aktiboen salmenta litzatekela argi dago. Prezioei dagokienez aldiz, aldakorrak izango dira kolore eta materialen arabera aldatzeaz gain, kantitate handian erosteagatik beherapenak egingo ditugulako.

Laburbilduz, enpresari hasiera emateko, guk jarritako diru kantitatea eta mailegua batuz, 15.000 euro izango ditugu gutxi gorabehera eta, pentsatutakoaren arabera, 1.000 autobusei gure zerbitzua eskainiz, hau da, 70.000 eserleku "salduz" gero, urtero 8.400.000 euro inguruko diru-sarrerak izango genituzke, urte on baten eredutzat izanik. Hain ondo ez badoakigu urtean 200 eserleku edo gutxiago saltzen ditugula kontuan izanik, diru-sarreak 84.000€ izango lirateke. Egoera honetan egongo bagina errifak saltzeari ekingo genioke edota beste zenbait ekintza aurrera eramateko prest egongo ginateke.



KALKULUAK :

Mailegua: 10.000€ → %3 (13.000€ ordaindu behar bankuari)

Gutako bakoitzak: 1.000€ → 5.000 €

- HASTEKO 15.000€ (10.000+5.000= 15.000€)

Urte on bat:

- 70.000 X120 (unitateak x salmenta prezioak) = 8.400.000€

Urte txar bat edo urte ez hain on bat:

- 700 X 120 (unitateak x salmenta prezioa)= 84.000€

KOSTUAK:

- Neopreno: 13,00 €/m
- Ozono: 29.99€/ 5- 10m² (neurriak 10.4x9x4.5cm - 170gr)
- Gira dezan kate motor elektrikoa: 58,99€/ unitateko

Aulki bakoitzeko kostuak (58.99+ 29.99+ 24.05=113.03€)

Salmeta prezioa (120€)